



Eugenio Artetxe Palomar
Araubide Juridikoaren, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen zuzendaria
Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetza
Segurtasun Saila

Jaun hori,

Ikuskizun publiko eta aisialdi jardueri buruzko Lege Aurreproiektuaren berri jaso genuen Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzan iragan abenduaren 9an, gaztelaniaz, Tramitagune tresna informatikoaren bitartez, Segurtasun Saileko Araubide Juridikoaren, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen Zuzendaritza horretatik bidalita, derrigorrezko txostena emateko eskatuz.

Eskaera horri erantzunez, xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezartzen duen azaroaren 6ko 233/2012 Dekretua, eta Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 9ko 193/2013 Dekretuaren 22.1) artikulua oinarri hartuta, txosten hau ematen dut:

a) Hizkuntza arloko araudiaren betetze maila.

Ikuskizun publiko eta aisialdi jardueri buruzko Lege Aurreproiektua aztertu ondoren, egungo hizkuntza araudia urratzen ez duela adierazten dut.

b) Euskararen erabileraren normalizazioaren gaineke eragina.

Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutua onartu zuen abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoak xedatzen duenez, autonomia erkidegoak bakarreko eskumena du ikuskizunen arloan (10.38 artikulua). Era berean, 17. artikulua segurtasun publikoaren gaineke eskumena aitortzen dio autonomia erkidegoari.

Halaber, abenduaren 18ko 2585/1985 Errege Dekretuak Euskal Autonomia Erkidegoaren esku utzi zituen ikuskizun publikoen esparruan ordura arte estatuak betetzen zituen zereginak eta zerbitzuak.

Eskumen horien babesean onartu zen azaroaren 10eko 4/1995 Legea, jendaurreko ikuskizunak eta jolas jarduerak arautzekoa.

Gerora, Europar Batasuneko araudiak aldaketak ekarri ditu kide diren estatuetako ordenamendu juridikoetara. Horrela, espainiar estatuan azaroaren 23ko 17/2009 Legea, zerbitzu jardueretan libreki aritzeari buruzkoa, eta abenduaren 22ko 25/2009 Legea, hainbat lege aldatu zituena zerbitzu jardueretan libreki aritzeari buruzko legera egokitzeko, onartu ziren. Ildo beretik, Euskal Autonomia Erkidegoan apirilaren 23ko

7/2012 Legea onartu zen, barne-merkatuko zerbitzuei buruz Europako Parlamentuak eta Kontseiluak abenduaren 12an emandako 2006/123/EE Direktibara egokitze aldera zenbait lege aldatzekoa.

Horregatik, orain izapidetzen ari den Lege Aurreproiektuaren bitartez ikuskizun publikoak eta aisialdi jarduerak arautuko dira. Xedapen indargabetzailearen eraginez indarririk gabe utziko da azaroaren 10eko 4/1995 Legea, arau berriarekin talka egiten duten maila bereko edo apalagoko gainerako xedapenak bezala. Azken xedapenetako lehenengoaren bidez zenbait aldaketa egingo dira irailaren 11ko 1/2007 Legegintzako Dekretuan, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Tasa eta Prezio Publikoiei buruzko Legearen testu bategina onartu zuen araua.

Lege Aurreproiektuaren I. Tituluan xedapen orokorrak jasotzen dira, arauaren objektua, eremua eta xedek jasoz I. Kapituluak (1-5 artikulua), eta Ikuskizun Publikoen eta Aisialdi Jardueren Euskal Kontseilua arautuz II. Kapituluak (6. artikulua). Horrela, 1. artikulua arabera, legearen objektua Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean gauzatzen diren ikuskizun publikoak eta aisialdi jarduerak arautzean datza, bai eta horiek burutzen diren establezimendu publikoek eta gune zabalek bete beharreko baldintzak eta betekizunak arautzean ere. Bestalde, 3. artikuluari jarraiki, legeak araututako ikuskizun publikoak, aisialdi jarduerak eta establezimenduak arauaren eranskinean zerrendatutakoak dira, aldatu eta garatu ahal izango dena Eusko Jaurlaritzaren dekretu bidez.

Lege Aurreproiektuaren II. Tituluan ikuskizun publikoen eta aisialdi jardueren antolaketa eta garapena lantzen da, eskubideak eta betebeharrak finkatuz I. Kapituluak (7-13 artikulua), eta ikuskizunen eta lokalen baldintzak eta betekizunak II. Kapituluak (14-22 artikulua).

Jarraian, Aurreproiektuaren III. Tituluan administrazioaren eskuartzea jorratzen da, xedapen orokorrak I. Kapituluak bilduz (23-28 artikulua), establezimendu publikoen irekiera II. Kapituluak (29-34 artikulua), ikuskizun publikoen eta aisialdi jardueren antolaketa III. Kapituluak (35-43 artikulua), eta eskumen araubidea IV. Kapituluak (44. artikulua).

Aurreproiektuaren IV. Tituluan zaintza, kontrola eta ikuskaritza arautzen dira, xedapen orokorrak jasoz I. Kapituluak (45-46 artikulua), ikuskaritza landuz II. Kapituluak (47-49 artikulua), eta segurtasun neurriak III. Kapituluak (50-54 artikulua).

V. Tituluan zehapen araubidea ezartzen da, arau-haustek definituz I. Kapituluak (55-59 artikulua), zehapenak II. Kapituluak (60-63 artikulua), preskripzioa eta iraungipena III. Kapituluak (64-66 artikulua), eta eskumena eta prozedura IV. Kapituluak (67-71 artikulua).

Azkenik, bi xedapen gehigarri, zazpi xedapen iragankor, xedapen indargabetzaile bat eta hiru azken xedapen ageri dira Lege Aurreproiektuan, gehi ikuskizun publikoen, aisialdi jardueren eta establezimendu publikoen katalogoa dakarren eranskina.

Ikuskizun publiko eta aisialdi jardueri buruzko Lege Aurreproiektuan badago hizkuntza aipurik:

-Pertsona titularren eta antolatzaileen betebeharrak zerrendatzen dituen 11. artikulua bigarren paragrafoko ñ) idatz zatian adierazten da pertsona kontsumitzaileen eta erabiltzaileen hizkuntza eskubideei buruzko araudian ezarritako betekizunak bete beharko dituztela.

-Informazioa eta publizitateari buruzko 15. artikulua lehenengo paragrafoaren arabera, legearen eragin eremuko establezimendu publikoen sarreran idazkuna edo plaka egongo da, erraz irakurtzeko moduko leku batean, establezimenduaren izenaz gain Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan adieraziko dituen, behintzat, lizentziak barne hartutako jarduerak edo ikuskizunak, erantzukizuneko aitorpena edo aurretiazko komunikazioa, ordutegia, baimendutako gehienezko jende kopurua, eta hamazortzi urtetik beherakoak sartzeko debekua, dagokionean.

Egokiak dira aurreikuspen horiek, eta bat datoz indarrean dagoen hizkuntza araudiarekin, bereziki Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutua onartu zuen abenduaren 22ko 6/2003 Legean jasotakoarekin. Halere, aztergai dugun Lege Aurreproiektuak euskararen erabileraren normalizazioari begira eragin hobea izan dezan, iradokizun hauek egiten ditugu:

b.1- Aurreproiektuaren 6. artikuluan Ikuskizun Publikoen eta Aisialdi Jardueren Euskal Kontseilua arautzen da, euskal herri administrazioentzat azterketa, koordinazio eta aholkularitza lanak egiteko helburuarekin, ikuskizun publikoen gaineko eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailari atxikita egongo dena.

Artikuluaren hirugarren paragrafoan aditzera ematen denez, erregelamendu bidez zehaztuko da Kontseiluaren osaera, antolaketa eta funtzionatzeko araubidea, baina Aurreproiektuak bai argitzen du ordezkatuta egongo direla autonomia erkidegoko administrazioa, lurralde historikoetako hiriburuetako udalak, ordezkaritza mailarik altuena duen euskal udalen elkarteak, sektore ekonomikoen interesak ordezkatzeko dituzten elkarteak, eta kontsumitzaileen eta erabiltzaileen babeserako elkarteak.

Kontseiluaren atxikipen publikoa eta osaera anitza ikusita, eta Euskararen erabilera arautzen duen azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legea aintzat hartuta, uste dugu bermatu behar dela Kontseiluko kideek batzarretan euskara eta gaztelania erabiltzeko duten eskubidea. Beraz, garapena egiten denean erregelamenduan xedapen bat txertatzeko proposatzen dugu, eduki honekin:

-Ikuskizun Publikoen eta Aisialdi Jardueren Euskal Kontseiluko kideek batzarretan euskara eta gaztelania erabili ahal izango dute. Era berean, deialdietan, gai-zerrendetan, aktetan eta beste idazkietan, Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialen erabilera bermatuko da.

b.2- Lehen aipatu bezala, Aurreproiektuaren 15. artikulua lehenengo paragrafoan aurreikusten da legearen eragin eremuko establezimendu publikoen sarreran idazkuna edo plaka elebiduna egongo dela. Testu egokia da hori, eta koherentea da Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutua onartu zuen abenduaren 22ko 6/2003 Legearekin, honen 40.1 artikuluan xedatutakoaren ondorioz jendeari produktuak saldu

edo zerbitzuak eskaintzen dizkieten establezimenduek euskaraz eta gaztelaniaz jarri behar baitituzte errotuluak, oharrak, eta oro har jendeari zuzendutako jakinarazpenak.

Alabaina, Aurreproiektuaren artikulatuan zehar badira beste xedapen batzuk, publikoari informazioa emate aldera errotuluak edo oharrak ezartzeko betekizuna ezartzen dutenak, hizkuntzarik aipatu gabe, eta uste dugu horietan ere bermatu beharko litzatekeela bi hizkuntza ofizialen erabilera. Horrelakoak ezartzen dira, besteak beste, 15.2, 16.2 eta 20.4 artikuluetan.

b.3- Bestalde, kontuan izan behar dugu Lege berria aplikatzearen ondorioz pertsona fisikoek eta pertsona juridikoetako ordezkariak harremanak izango dituztela herri administrazioarekin, hala nola lizentziak eskatzeko edo erantzukizuneko aitortpena edo aurretiazko komunikazioa aurkezteko, eta Euskararen erabilera arautzen duen azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeak dio herritarrek euskara eta gaztelania erabil dezaketela, ahoz nahiz idatziz, herri administrazioekiko harremanetan, arreta hizkuntza berean jasotzeko eskubidea barne (5.2.a eta 6.1 artikulua).

Beraz, Lege Aurreproiektuan xedapen berria txertatzeko proposatzen dugu, eduki honekin:

-Lege honen ondorioz herri administrazioarekin dituzten harremanetan, pertsona fisikoek eta pertsona juridikoetako ordezkariak euskara eta gaztelania, ahoz nahiz idatziz, erabiltzeko eta arreta hizkuntza berean jasotzeko duten eskubidea bermatuko da.

Adeitasunez,

Gasteizen, 2013ko abenduaren 18an

Ángel Lobera Revilla
Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko zuzendaria